

Beharrizanak hezkuntzan¹

Andoni Eizagirre²

1. Sarrera

Hezkuntzari buruzko gogoeta egite aldera, beharrizanaren ikuspegitik antolatuko dugu gaia. Jakinekoa denez, euskaldunon tradizioan ekimen herrigileek ohituraz pertsona eta pertsonen beharrizanak erdigunean ipini dituzte. Horixe izango da gure abiapuntua.

Alde horretatik, galdera nagusia hau da: zeintzuk dira gurean gaur egunean hezkuntzako beharrizanak? Halako galdera baten muineko planteamendua ondokoa da: ezagutu ditzagun beharrizanak, gero haren zerbitzura antolaketa pentsatzeko. Gogoeta bokazio horrekin dago egituratuta. Baina ikusiko dugu planteamenduak bi arazo eta zailtasun praktiko dituela. Alde batetik, beharrizanak askotarikoak dira, izaera, zentzu eta helburu askotakoak; eta beharrizanen artean konkurrentzia ere badago. Bestetik, antolaketak ez du beharrizanen eta guztion onaren zerbitzura zertan egon, eta neurri protekzionistak eta korporatibistak gailendu daitezke, hezkuntzako eragileen aldetik, besteak beste. Mendebaldeko gizarte pluralistetan errealitate krudel hori gauza arrunta da, ez hain orokorra hezkuntzaren eremuan, ordea.

Gaia, planteamendua eta arazoa aurreratuta, hau da testuaren egitura: lehendabizi, beharrizanaren kontzeptua eta esanahi morala argituko ditugu labur-labur; gero, bigarrenik, gurean hezkuntza beharrizanak zein diren galdetuko dugu, eta horri eskainiko diogu testuaren zati gehiena, beharrizanen tipologia bat osatuz; azkenik, bukatzeko, labur bada ere, gure aurrekoei diegun zorra aitortuz, gurean iragan hurbilean ekimen herrigileetatik ikasi dugunaren pintzelada bat sintetizatuko dugu, testuan zehar esandakotik abiatuz, aurrera begirako proposamen orokor bezala.

2. Beharrizanak

Pertsona eta pertsona-taldeen beharrizanak hiru motatan bereizi eta bildu ditzakegu: beharrizan fisiologikoak, beharrizan psiko-sozialak, eta beharrizan moralak. Jakina, sasoi historikoaren

¹ Eusko Ikaskuntzak antolaturiko *Euskal hezkuntza sistema: adituekin solasean, herritarren azpimarra* Sinposioan (Gasteiz, 2021-10-23) aurkeztutako hitzaldiaren bertsio idatzia da.

² Mondragon Unibertsitateko irakaslea.

arabera, beharrizan horietako bakoitzaren izaera eta zentzua aldakorrak dira, bai eta ere unean une beharrizan bakoitzaren premia eta garrantzia erlatiboa. Ez da gauza bera Euskalherrian iraupeneko ekonomian edo gizarte industrialean bizi, edo XXI. mendeko lehen herenean.

Beharrizanak eta kultura eskutik hartuta datoz. Kulturak ezartzen dizkigu beharrizanak sentitu, pentsatu eta bizitzeko portaerazko jarraibideak, bai eta horiei erantzuteko edo eraldatzeko burubideak, antolaerak eta baliabideak ere, eta azken unean garapen teknologikoak eta moralak kultura bizitu eta transformatzen dute. Alde horretatik, beharrizanei buruz ari garenean, hiru galdera unibertsal hauei buruz ari gara: nola antolatzen gara etxean (familian, herrian, enpresan), beharrizanei erantzuteko?; nola antolatzen gara auzokideon artean eta besteekin?; zein dira pertsona eta pertsona-taldeek ondasunekin ditugun harremanak?

Beharrizanek, beraz, sustraiko galderak planteatzen dizkigute. Eta beharrizanei buruz ari garenean, kulturari buruz ari gara, eta gure artean antolatzeko moduez ere bai. Beste era batera ere esan genezake: kulturaren galderak unibertsalak dira, eta erro-errokoak, baina erantzunak era askotakoak izaten dira sasoi historikoaren edota moral partikularren argitan.

Kultura bakoitzak izan du beharrizan eta galdera unibertsalei erantzuteko modu berezia. Euskaldunok ere bai, eta gurean ohituraz beharrizanei lotuta ageri dira besteak beste pertsonaren burujabetza (nor izatearen kontzientzia, esku-buru askia izatearen bilaketa), autoeraketa, auzolanaren kultura, eta tradizio foraleko beste hainbat usadio. Abestiak ere halatsu dio: «Bakoitzak urraturik berea / denon artean geurea». Arizmendiarrietaren pasarte batek letra interpretatzen digu: «Ez da uztarik erein gabe, ezer ez da berez sortzen; ez da noblea besteei eskatzea emateko, gu emateko gai ez garena». Alde horretatik, euskal kulturaren edo ekonomia moralaren bereizgarri nagusiak izan dira esperientziaren zentzua (tradiziotik ikasiz berri du) eta zentzu praktikoa (lanari eta beharrari emanak bizi izan gara).³

Horri emaniko jarraidurak eta une oro ikasteko eta berritzeko gaitasunak erakusten dute gurean azken hamarkadetako ekimen herrigileen garrantzia eta trinkotasuna, besteak beste, hezkuntzaren eremuan, 1943-1978 urteen bitartean, eskola herrigileen bidetik. Kultura horretatik egin ziren, esate baterako, XX. mendearen lehen herenean hasitako egitasmora itzuliz, gerra ostean eta 1943tik aurrera euskaraz ikasi eta irakasteko ahaleginak; eta irakasleen eta andereñoen formazioa; eta hizkuntza erduei buruz nazioarteko adituekin formazio-mintegiak eta lanak; eta euskararen eta euskal eskolaren aldeko bestelako egitasmok, jende on eta saiatuaren eskuzabaltasunez, finantza-baliabideak ere herribideratuz. Kultura horretatik

³ Ikuspegia luze eta zabal ikertu berri dugu. Ikus Eizagirre, A. eta Muñoa, I. (2021): *Burujabetzaren bidetik: bakoitzak urraturik berea, denon artean geurea*. Lasarte: Etor-Ostoa.

egin ziren, esate baterako, trantsizioaren osteko lehen Jaurlaritzan, Etxenikeren hezkuntzari buruzko proposamena –nahiz eta hezkuntzako eragileek atzera bota zuten- eta Pako Garmendiak bideratutako ereduaren sistema, familien eta pertsonen askatasunean eta konfiantzan oinarritua, beti ere; apartekoa zen horien ezagutza eta jakinduria, epaien zintzotasuna edo ekuanimitatea, askatasunaren eta justiziaren zentzua, eta zuhurtziaren balioa, besteak beste. Asko zor diegu, zalantzarik gabe.

Laburbilduz, beraz, beharriaz arreta ipintzea garrantzitsua da. Kultura bakoitzak ditu galdera unibertsalei erantzuna emateko bere modu singular eta tradizionalak; beharriaz ulertu eta horiei erantzuna emateko moduak. Gure kasuan, gainera, euskaldunok beharriaz ez diegu erantzuna eman –ulermen zein antolaera aldetik- indibiduo-estatu binomioak mugaturiko aukeretatik, eta orain gutxi arte bederen ekonomia moral bereziak aukera eman digu pertsonari eta pertsonen bizi horizonte indibidual eta kolektiboari buruzko galderak beste era batera planteatzeko, garatzeko eta herribideratzeko.

3. Hezkuntzako beharriaz gurean

Zeintzuk dira gurean hezkuntzako beharriaz? Aurreko atalean beharriazaren esanahia eta garrantzia estrategikoa azalduta, jarraian beharriazaren tipologia bat eraiki eta izaera, zentzu eta helburuaren araberrako bost tipoko beharriaz bereiziko ditugu.

Ikusiko dugun bezala, beharriaz ez daude errealitatean emanak guk deskubritu zain, hartu eta erantzuteko moduan. Hori baino konplexuagoa da, besteak beste, interesak, balioak, eskariak, estrategia subliminalak jokoan daude, beharriaz interpretatu edota lehenetsi daitezzen. Ideia horixe azalerrate da gure xede nagusia.

3.1. Beharriazaren kontzepzio historikoa

Hezkuntza alorreko beharriaz bat, klasikoa eskolaren funtzioen artean, ikaslea oinarritzko galderekin kultibatu eta heztea da: nor naiz?; zer nahi dut?; nortzuk gara?. Pertsonaren eta pertsonari buruzko sustraiko galderak dira, eta familian, espazio publikoan eta mediatikoan, eta eskolan akzioz edo omisioz erantzuna ematen diegu.

Irakurleari gaia aise ezaguna izango zaionez, digresio bat egin eta gogoeta osagarri bat hona ekartzeko aprobetxatuko dugu. Izan ere, gure iragan hurbilak zera irakasten digu: tradizioa eta berrikuntza eskutik hartuta datozela; ona dela gure historiaren ezagutza izatea (esanahi morala

aditzea), etorkizuneko garapenari erantzuna emateko. Aztertzen baditugu Euzko Pizkundera, edo geroxeago Agirre lehendakariaren obra edota Arizmendiarrietaren sermoiak, idazlanak eta gogoetak, jabetuko gara etorkizunerako aukerak irekitzeko hausnarketetan dentsitate eta dimentsio historikoa oso handia dela. Historiak balio digu jabetzeko euskaldunok beharriaz tradizio foraleko kulturaren bidez eman diegula orain gutxi artean erantzuna, eta haren jarraiduran dagoela ekimen herrigileen sustraiko motibazioa eta gaitasun estrategikoaren muina.

Era berean, iragan hurbilak erakusten digu gurean elkarbizitzaren gai beti arantzatuari zer nolako aterabide ematen saiatu garen. Arizmendiarrietaren eta estreinako kooperatibisten asmo nagusia egitasmo konbergenteak herribideratzea zen, alegia, tribalismoak gainditzea, tartean baita jatorriari eta etniari loturikoak ere. Ezberdinkeriak ez, baizik eta pertsonaren duintasuna, errespetua, autonomia zituzten ipar, eta jakitun ziren jabetzak, lanak eta beharrak pertsonen aitortzan, gaitasunean eta bizikidetzan zuen garrantziaz. «Auzotasunak elkartu ginduzan gu, gure Euskalerra au politikari-politiki sortzeko; odolak baiño areago auzoak, aaidetasunak baiño beñago auzotasunak», idatzi zuen On Manuel Lekuonak. Iragan hurbilak –gauza itsusi eta lotsagarri askorekin batera- bertute herrigileen bidetik elkarbizitzari buruzko ikaskuntza etikoak lantzeko ere balio digu.

Edozein kasutan, beharriaren kontzeptio historikoa eskolaren funtzio klasikoa da. Eta galdera nagusiak –nor naiz, zer nahi dut, nortzuk gara- une oro lantzen dira. Beste kontu bat da modu kontzientean eta elkarrekikoaren zentzuarekin egiten ote dugun; gerta liteke gaia deskuidatzea (eskolak bere ardura ez betetzea, gure seme-alabei Erdi Aroa feudalismoa dela irakastea), edo modu eskusibistan eta baztertzailan egitea, noski. Nolanahi den, hain beharriaren garrantzitsua izanda, bereziki kezkatu beharko gintuzke gurean nerabeen, gazteen eta helduen artean Euskalherriaren iraganari, izateari eta etorkizunari buruz nolabaiteko objektibotasunarekin eta modu argian, ordenatuan eta logikoan hitz egiteko zailtasunak.

3.2. Beharriaren kontzeptio kognitiboa

Jakina, gurean hezkuntzak zein beharriaren dituen erantzuteko, ebidentzietara ere jo genezake. Esate baterako, hezkuntzari buruzko ikerketek erakusten dizkiguten ebidentzietara.

Gaur egunean hezkuntzari buruzko ikerketak ugaritu egin dira, hipotesiak proban ipini, pilotuak egin eta talde esperimentalak eta kontrol taldeak bereiziz ebidentziak lortzen ditugu. Gainera, nazioarteko ikerketak izaera konparatukoak ere badira, eta tokiko ezagutza ez ezik patrio

orokorrakoak ezagutzeko aukera dugu. Aukera bat da, beraz, hezkuntzako beharrianak ebidentziek diotena kontuan hartuz formulatzea.

Alde horretatik, adibide modura, aipa ditzagun nazioarteko ikerketek egiaztatzen dizkiguten lau ebidentzia nagusiak. Lehenengoaren arabera, irakaslearen hasierako formazioa eta selekzioa oso da garrantzitsua gure nerabeen ibilbide formatiboan eta eskolarrean. Adostasun formala dago, alegia, badakigu formazioa eta selekzioa garrantzitsuak direla. Horraino dakigu. Formazioaren inguruan, gazteenen kasuan, bi gauzatxotan adostasun handi xamarra ere badago: alde batetik, ikaste-irakaste modu batzuek eta besteek inpaktu oso ezberdina dutela estatus sozio-ekonomiko ezberdinetako haur eta nerabeetan; bestetik, memoria baliabide kognitibo bezala, eta neurri batean memorizazioa, ikasteko, ulertzeko eta ikasten jarraitzeko baliabide efektibo nagusia direla.

Bigarren ebidentzia gobernantza eta antolaeraren garrantziari dago lotua. Kasu honetan, adostasun formala ez ezik, adostasun sustantiboa ere badago. Alegia, zer nolako gobernantza eta antolaera den ona badakigu: zentroen gobernantza deszentralizatua, eta eskola antolaketa zuzendaritza sendoekin, eta taldeko lan iraunkorra irakasleekin, entitate lokalekin eta auzo-herriko beste zentroekin. Jakina, eredu horretara igarotzea zaila da: erresistentziak daude, eraldaketa kulturala (antolakuntzako eta pertsonala) nekeza izaten da, eta gainera gobernantza-sistema efektiboa izan dadin baliabideak behar dira, eta modu jarraituan. Agidanez, ikastetxeen artean gobernantza sistema ezberdinak badaude, horrek efektu segregatzaileak eragin edota areagotzen ditu auzo edo herri berean.

Lehen Hezkuntzatik (LH) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako (DBH) trantsizioa azpimarratzen du hirugarren ebidentziak. Honen arabera, LH garrantzitsua da, DBH ere bai, baina ikerketek erakusten digute batetik besterako trantsizioa aldagai esplikatzaile independentea dela. Trantsizioak bere baitan duela garrantzia, alegia. Trantsizioa argia, eroso eta ordenatua izan dadin, alderdi kognitiboak, emozionalak eta erlaziokoak kontuan hartu behar dira.

Laugarren eta azken ebidentziak balioen transmisioa azaleratzen du. Ikerketek zera berresten digute: gurasoek euren seme-alabei transmititzen dizkieten balioak oso garrantzitsuak direla. Bereziki, hezkuntzari dagokionean, autoritateari, hezkuntza errespetatzeari eta esfortzuari buruz transmititzen dizkiegun balioak dira inportanteak. Honek, jakina, hezkuntzaren eta faktore eskolarren mugak gogorarazten dizkigu: alde batetik, eskolatik kanpoko faktore baten garrantzia azpimarratzen du; bestetik, hezkuntzan eta ibilbide formatiboan familia eta ingurua baldintzatzaile gisa azaleratzen dira. Eskolako hezkuntzari buruz eta esfortzuaren ohiturari buruz

familiek –eta gizarteak- transmititurikoa inportanteak dira. Gerra ostean jaiotako gure gurasoen zentzu komunak eta sen onak garbi xamar zuen hori.

Merezi du aipatzea laugarren ebidentzia orain gutxi herrialde nordikoetan formulatu, egiaztatu eta berretsi dela; azken hamabi urteotako bilakaera kezkarriari erantzuna emanaz (oparotasuneko kulturaren hezitako familien balio-transmisioak –utzikeriak- seme-alaben ibilbidean inpaktu negatiboa izan duela aitortu da). Herrialde nordikoak, bestetik, lehen hiru ebidentzietan iaioak izaki, hipotesi onargarria da formulatzea lauen pisu esplikatzaila igual ezberdina dela, eta laugarrenak uste baino garrantzia gehiago duela.

Nolanahi den, beharizanaren kontzepzio kognitiboa ere kontuan har genezake, beraz. Gaur egunean, ikerketei esker errealitate eskolarrarekin harreman kognitiboa ere badugu. Alde horretatik, hobekuntza hipotesiarekin bat egingo bagenu, gure buruari galdetu behar diogu hezkuntzari buruzko debate publikoan ari ote garen ebidentzia hauek kontuan hartzen.

3.3. Beharizan instituzionalak

Hezkuntza, besteak beste, politika publikoetan alor bat da. Horrek inplikazio asko ditu. Esate baterako, herri-erakundeek badituzte alde aurretiko konpromiso batzuk: instalazioak mantendu eta berritzea; irakasleei soldatak ordaintzea; titulazio sistema erregulatzea eta betearaztea; ikaste plana ezartzea, edo hori ikuskatu eta zuzentzea. Era berean, hezkuntza alorrean badaude arauak, erregulazioak, aurrekontu esleipenak, zerbitzuak, bete behar direnak. Nolabait esateko, hezkuntza sailburua bere taldearekin gobernura iristen denean, beharizan instituzional batzuk indarrean daude, horietako askok eskaera korporatiboei erantzuten diete, eta inertzia horri jarraitzea da zuhurrena, eta arruntena.

Beste era batera esanda, badira beharizan instituzionalak, hezkuntzari buruz ari garenean, ezinbestean kontuan hartu behar ditugunak. Eta, jakina, beharizan instituzionalak garrantzitsuak dira. Kasurik onenean, beraz, politikak inkrementalak dira (indarrean dagoenetik abiatuz hobetzen ahalegintzen da), eta ez da gutxi. Aterabide optimoa, sarritan, testuinguru baldintzatuetan, kostu gutxienerako emaitza onena lortu izana simulatzean –eta eszenifikatzean– datza. Kasurik txarrean, hezkuntzako eztabaidak beharizan instituzionalei buruzkoak bilakatzen dira, auto-erreferentzialak, alegia. Izan ere, hezkuntza (erabaki publikoa den heinean) interes korporatibo ugari gurutzatzen diren eremu zitala ere bada.

Zera galdetu genezake: ze neurritan gurean beharizan instituzionalak auto-erreferentzialak dira? Alegia, bere horretan helburu, esate baterako, erakundeen eta ikastetxe-sareen egitura

instituzionala eta sozio-ekonomikoa bizirauteko? Ze neurritan ari gara ezagutzak eta ebidentziak bigarren mailan uzten, politika publikoen formazio ziklotik baztertzen (arazoaren definizioa, politiken diseinua, inplementazioa, kudeaketa, ebaluazioa), beharrian instituzionalen biziraupena dela eta? Hezkuntza erabaki publiko bat da. Momentuz, hori gogoan hartzea interesatzen zaigu. Testu honetan beharrianen tipologia sortzen baizik ez gara ari.

3.4. Ahazturiko beharrianak

Hezkuntza beharrianei buruz ari garenean, datuen, politiken eta solasaldi publikoaren arteko desfaseak beste beharrian mota bat azaleratzen digu. Badira pertsonen bizi horizonte individual eta kolektiboetan baldintzatzaile diren arazo eta premia objektiboak, baina itzalean daudenak, alegia. Hiru adibide ipiniko ditugu, beharrian tipoa esplikatzeko xedearekin, beti ere.

Lehen adibidea hezkuntza dualtasuna da. Esate baterako, goi-mailako hezkuntzan Lanbide Heziketaren eta Unibertsitatearen arteko dualtasuna gurean oso da deigarria. Dualtasuna kontzepzioan eta xedean, balio ezberdineko bi ibilbide bezala, eta dualtasuna familien lehenetasunetan eta azken batean matrikulazio-tasetan. Gaiak kezkatu behar gintuzke, besteak beste, horren esplikazioa, gurean, ez dagoelako eskaintzako politketan (formazio oparoa, ugaria, berritzailea eta bailaretako premietara azkar eta aldiro egokitzen den eskaintza dugu; familiek ibilbide batzuk eta besteak jarraitzeak lan merkatuako trantsizioan dituen inplikazio ezberdinei buruz ezagutza orokor xamarra badute; Lanbide Heziketa eredugarria eta aitortua dugu arlo metodologikoan eta pedagogikoan ez ezik antolaeran eta harremanetan berritzeko bokazio etengabea duelako; Berrikuntza Aplikatuak Ikerketa Zentro bikaina ere badugu).

Bigarren adibidea unibertsitarioen saturazioa da. Aurrekoaren jarraipen logikoa da, baina modu analitikoan bereiztea komeni zaiguna. Gurean hezkuntza hedapena eman da, modu azeleratuan, eta zorionez biztanleria aktiboaren kualifikazio maila aldatu da. Baina gaur egunean datuak kezkarriak dira. Euskadi da europar eskualde guztien artean, alde ikaragarri handiarekin gainera, unibertsitate ikasketak amaitu osteko adin kohortean unibertsitario tasa handia duen eskualdea. Bistan da honetan behintzat aurrena izatea eta onena izatea bi gauza oso ezberdin direla. Gurean gainera, konposizio sektorialagatik, egitura produktiboagatik, eta enpleguaren mutazioa dela eta, itinerario horiek absorbitzeko modurik ez dugu. Ikusi besterik ez dugu unibertsitate ikasketak izatearen balio posizionala, errendimendua eta lorpen okupazionala nola ahuldu den. Lan merkatuaren konfigurazio instituzionalak, gainera, kasurik onenean, doikuntza arazo horri buruzko esplikazio partziala baino ez digu eskaintzen.

Hirugarren adibidea lorpen akademikoen esangura partziala da. Gurean hezkuntza sistemaren efikaziari loturiko adierazleetan emaitzak oro har onak dira. Esate baterako, eskola uzte goiztiarreko tasa baxuak ditugu, graduatuen tasa esanguratsuak (DBH amaitu eta ikasten jarraitzen dutenen tasa haundia), eta ikasketa maila eta adinaren arteko egokitzapen tasa altuak, besteak beste. Baina horren arrakastan hezkuntza eta faktore eskolarra oso apalak dira. Alde horretatik, lorpen akademiko positiboek hiru arazo edo ahulgune ezkututzen dituzte.

Alde batetik, datu agregatuak dira, eta gehixeago xehetuz gero, segregazioa begien bistakoa da. Gurean gainera jatorriaren araberrako ikasle-mota eredu jakinetan kontzentratzen da (A eta B ereduetan, izan eskola publikoan izan bestelakoetan), eta eskola-sarearen polarizazioa ere badago, eta horrek areago zailtzen du berdintasuneko aukera –eta hezkuntzaren eraginkortasuna-, eta nerabeen eta gazteen arteko aukera ezberdinean bete-betean eragiten du.

Bestetik, nerabeen ibilbide formatiboan eta eskolarrean hezkuntzak bainoago egitura sozialak eta bereziki lan merkatuaren egoerak du garrantzia. Gurean, zorionez, lan merkatua ez da erakargarria nerabeentzat. Ikerketa konparatiboak zera berresten digu: nerabeentzat lan merkatuan enplegua dagoenean, eskola uzteko pizgarriak handiagotzen dira. Egia esatera, Mendebaldeko herrialdeetan 1970etan dagoeneko igarritako fenomeno soziologikoa da (“aukera kostua” izendaturikoa: uko egiten diogun alternatibaren koste ekonomikoa familiarentzat eta nerabearentzat).

Hirugarren arazoa da nerabeen lorpen akademiko onak erlatiboak direla. Nazioarteko ikerketa konparatuek erakutsi digute gure nerabeen lorpen akademiko onak, ikasketa mailaren terminotan, ez datozela bat gero konpetentzia eta bestelako gaitasunak neurtzen dituzten emaitzekin. Emaitza hauek serie historikoek bi hamarkada luzetan berretsi dituzte, ikerketa ezberdinetan, eta askotariko gaien inguruan (ulermen gaitasuna, matematikak, zientziak). Gurean, gainera, emaitza onak eta bikainak dituztenen tasa oso baxua izan ohi da, emaitza apala dutenena esanguratsua, eta gehiengoaren emaitzak ere batz-bestekoaren aise azpitik daude (hiruen konbinazioak berresten du gaiari buruz gehixeago kezkatzearen premia).

Hiru adibide nagusiek, gainontzean, hezkuntzaren kalitatea eta inbertsioaren eraginkortasuna zalantzan ipintzen dituzte. Adibide batzuk baino ez dira, ordea. Balio digute gogoan hartzeko zeinen garrantzitsuak izan daitezkeen espazio eta agenda publikoan ez dauden pertsona errealen beharrianak; Euskalherriaren gaitasun estrategikoa mugatzen duten arazoak ere badira, sakon-sakonean.

3.5. Beharrizanen segmentazioa

Beharrizanei buruz, gainontzean, modu orokor eta unitarioan aritu gaitezke. Baina, jakina, beharrizanak ezberdinak izan daitezke, bereziki gizarteko ezberdintasunak trinkotzen direnean.

Mundua erabat aldatu zaigu, gure herriaren egitura eta morfologia soziala ere bai.⁴ Alde batetik, aberastasun ekonomiko handiko herria gara (Euskal AEko per capita BPG 36.254€ 2019an). Baina horrekin bat ez datorren errealitatea ere badugu, ikuspuntu konparatibo batetik begiratuta, ez ohikoa: bi digituko langabezia tasa (eta iraupen luzeko langabetuen masa esanguratsua), ziklo ekonomikoei oso menpeko egitura produktiboa, gazteenen kasuan lan merkaturako trantsizioaren atzeratzea eta joan-etorrikoa, eta beheko hiru pertzentilak laneratzeko eta gizarteratzeko ahalegina egin dugu –behintzat eskusioan ez erortzeko balio izan duena. Errealitate oso heterogeneoa, eta askotarikoa, hain herri txikian. Aurreikuspenen arabera, konposizio sektorialak, egitura produktiboaren transformazioak eta enpleguaren mutazioak egitura sozialaren dualtasuna (bailaren artean, ikasketen arabera, belaunaldien artean) sendotu eta ekitatean arrakalak berrituko ditu.

Horrek inplikazio asko ditu hezkuntzan, eta zer esanik ez hezkuntza beharrizanetan, gizarteko segmentuen artean aukerak, hautemateak eta espektatibak zeharo ezberdinak direlako. Izan ere, mugikortasun sozialeko aukerak estutu eta estatusa hobetzeko probabilitateak ikaragarri estutu dira, bereziki estatus sozio-ekonomiko baxuko kasuan. Horrek, bestetik, esfortzuari eta merituari loturiko diskurtsoaren mugak azaleratzen ditu. Erdiko klasea horren jakitun da; eta gainera hezkuntzari loturiko espektatiba oso baxuak ditu: ziurtagiri akademikoak eskuratzea da bere kezka nagusia. Jakina, erdiko klaseak eskolaz aparteko baliabide ugari ditu, eta erabiltzen ditu, bere estatusen berregiteko. Hori berri oso txarra da, besteak beste, agenda publikoan hezkuntzako ze beharrizan lehenetsi daitezkeen aurreratzen digulako. Bien bitartean, estatus sozio-ekonomiko baxuko pertsona eta pertsona-taldeek ere familiarik jasotzen dute herentzian euren bizi horizontea. (Guztiarekin, goi mailako ikasketak dituztenen laneratzeko ere igarri daiteke jatorri sozialaren garrantzia, ez soilik eskolako banaketan eta ikasketa mailaren lorpenean).

Bi dira goiko diagnostikotik eratortzen diren berehalako arazoak. Alde batetik, hezkuntzan segregazioa azaleratzen da, askotan estrategia familiarrek eta interes korporatiboek eraginda.

⁴ Eizagirre, A. eta Udaondo, A. (2020): *Eraldaketa globalari neurria hartzen: euskal gizartea aro ekonomiko berrian*. Arrasate: Mondragon Unibertsitatea; Eizagirre, A. (2020): *Europaren geroa: geldialdi sekularreko eskenatokia*. Arrasate: Mondragon Unibertsitatea.

Hezkuntzaz ari garenean, beraz, segregazioaz hitz egin behar dugu, azken unean gurean hezkuntzak ere segregatu egiten duelako. Epe oso motzean dinamika demografikoek eta ezberdintasuna gizartean enkistatzeak egoera larrituko dute. Bestetik, ordea, deigarria da hezkuntza eta segregazioa lotzeko obsesio ziklikoa, edo hobe esanda, harridura eragiten du segregazioaz hezkuntza alorrean soilik hitz egin nahi izatea, areago izebergaren punta denean. Esperientzia komunak galdu ditugu, pertsonen espektatibak hezkuntzatik deslotu dira, eta gurean polarizazio afektiboa handia da hezkuntzari buruzko debateetan; ez da sare sozialetako agitazio eta propaganda hutsa. Azken unean, ongizateko politika klasikoak saturatuta daude, eta hezkuntzaren bidez aberastasuna birbanatzeko aukerak ez dira egiazkoak.

4. Beharrizanak eta antolaera

Momentuz behintzat, beharrizanei buruz esandakoa aski zaigu. Ikus dezakegun bezala, beharrizanak askotarikoak dira, izaera, zentzu eta helburu ezberdinak dituzte, ez dute zertan osagarriak izan, formulazio batzuk eksklusiboak dira, eta baztertzailak ere izan daitezke. Bost beharrizan mota bereizi ditugu, eta bakoitzaren deribadak ugariak dira. Zerrenda gehiago luzatu genezake, eta bakoitzaren azalpena ere bai, noski Hiru asmorekin egin dugu ariketa: beharrizanen garrantziaz jabetzea; beharrizanei buruzko irakurketa tolesgabea ez egitea; beharrizanak akzioz eta omisioz definitzen ditugula ohartzea.

Beharrizanak daude XX. mende osoan zehar gure erakunde sozialen jatorrian eta gizarte bizitzako alor ezberdinetan (jarduera industrialaren birsortzean, askotariko pertsonen laneratzeko egitasmoetan, arrisku kapitaleko elkartearen sorreran, gazteen formaziorako eta prestakuntza teknikorako ekimenetan, zaintza boluntarioko esperientzietan, euskarazko kulturgintzan, edota gizarte zerbitzuetan, besteak). Beharrizanak eta horiei aterabidea emateko bokazioak zera gogorarazten digu: erakundeen izenak ez, baizik eta izanak inporta izan duela, orain gutxi arte bederen. Arizmendiarrietak ere kooperatibei buruz ez zuen hitz egiten, kooperatibismoari buruz baizik; jatorrian, gainera, bere asmoa tokiko enpresak transformatzea zen, helburua pertsona burujabea baitzen, eta hamabost urte luzeren ondoren ebatzi zuten lehenengo kooperatiba sortzea, helburua lortzeko beste aukerarik ez zegoela iritzita ("esku hutsik jaio eta / esku hutsikan nabille, / puntakoetan iñor etzaigu / gertatu ongille).

Horren harira, gurean bada kontuan hartu beharreko beste elementu bat: gerta liteke artxipelago asko izatea, eta artxipelago horiek aberatsak izatea ere bai, ekonomiaren zein hezkuntzaren alorretan, baina pertsona errealean beharrizanak eta komunitatea bigarren mailan uztea. Gureak hortik du gero eta gehiago. Hipotesi modura bada ere, zera formulatu dezakegu:

indarrean ditugun hezkuntzako erakundeek eta politikek –estrategia familiar kontserbadoreek elikatuta- ez dute pertsonen eta Euskal Herriaren aukerak irekitzeko gaitasun estrategikoa, baina ez eta ere kezka edo beharizan berezia horren erantzukizuna euren gain hartzeko. Kontzientzia, erantzukizuna eta ekintza herrigilea ez daude bere onenean.

Jose Maria Ormaetxeak esaten zuen saturazio material eta formatiboa ditugula, eta morala zeharo higatuta. Legea positiboa, kultura utilitarioa eta aspirazio egozentrikoa nagusitu direla. Egin kontu gure herriak ez duela inolako aukera, gaitasun eta baliabiderik transformazio handietan eta horien sakoneko joeretan eragiteko. Kasurik onenean, aukera eta erronka barneko erakunde sozial eta ekonomikoak berregitea da. Horregatik da garrantzitsua beharizanen gaia, eta gure traiektoria historikora itzultzen ahalegintzea. Pentsatzen jarrita, aukera onena ez ezik, aukera bakarra ere hori da, agian.

Javier Retegik oinarriko lau balio bereizten ditu, gurean garrantzia izan dutenak orain artean eta testuinguru zein alor oso ezberdinetan. Alde batetik, pertsona eta bere askatasuna eta duintasuna ipini behar dira erakunde sozialen erdigunean. Horixe da elkarbizitza eta gizartea oinarri sendoetan zimendatzeko modu bakarra. Bigarrenik, pertsona besteei zordun da, eta besteeikiko erantzukizuna ere badu. Horren kontzientzia hartzea garrantzitsua da, ardurak hartu eta modu herrigilean aritzeko. Hirugarrenik, elkarren arteko kooperazioak –pertsonek artekoak, erakundeek artekoak, kapitalaren eta lanaren artekoak- ahalbidetzen du gizartea eraldatzea, eta eraginkortasuna ugaltzeko palanka da. Laugarrenik, pertsonen eta erakundeek balioetan aukerak estrategikoa irekitzeko eta anbizio sozialerako bokazioa da garrantzitsua. Horrek ematen du aukera gizarteko bizitza justizian eta ekitatean oinarritzeko, pertsonen aukerak eskaintzeko, eta bestearekiko esker onez burujabetzaren bidetik gizabideak zabaltzeko.

Mugimendu herrigileen jatorrian beti dago beharizan edo premia. Gaur ere baditugu beharizanak. Grina kontserbadorea nagusitzen da, inertzia handiegien harrapatuak gaude, ordea. Premia komunitario asko ditugu. Iragan hurbilak erakusten digu herrigintzak ezinbestean pertsonak ipini behar dituela erdigunean, partaidetzazko edo erantzukizuneko kulturaren oinarritua; ekonomiak eta antolaerak kooperaziokoa izan behar duela; berrikuntza arlo guztietara ireki behar dela; eta gizartea itun aske eta borondatezkoan baizik ezin daitekeela antolatu. Halako antolaerak, baina, pertsonen beharizanak aitortzea eskatzen du, auzokideen zerbitzura ipintzea, eta kontuak errenditzeko ausardia izatea.